

Izenburua	<i>Bixitailerra</i>
Formatua	Tailerra
Egilea	UEMA
Kontaktua	https://www.uma.eus/harremana/ / 946279195 (Aulesti, Bizkaia) / 943260372 (Oiartzun, Gipuzkoa) / 943816699 (Azpeitia, Gipuzkoa)
Nori zuzendua	DBH 1eko eta DBH 2ko ikasleei (UEMAko kide diren herritako ikastetxeok. Salbuespenak egin ditzakete, baina bideragarritasuna ikertu egin beharko lukete).
Helburuak	Arnasguneek duten garrantzia eta azken hiru hamarkadetan izan duten bilakaera ikusaraztea eta aurrera begirako gakoak ezagutzea, modu didaktiko batean.
Oinarriak	Bi esparru kontzeptualetan oinarritzen da UEMAren hezkuntza proiektua: <ul style="list-style-type: none"> • Einar Haugen hizkuntzalariaren (The Ecology of Languages, 1972) hizkuntza ekologiaren teoria. • Joshua A. Fishman hizkuntzalariaren (Reversing Language Shift, 1991) arnasguneen ideia.
Metodologia	Saio didaktiko bat da. Lehenbizi azalpen teoriko laburra emango zaie. Azalpen labur horretan, UEMA zer den azalduko zaie eta ondoren tailerrak oinarri duen erakusketaren nondik norakoen berri emango zaie ikasleei. Arnasguneak zer diren eta zein garrantzia duten ezagutzeko tarte ere eskainiko da. Behin azalpenak emanda, taldeka jarriko dira eta lau multzo osatuta, talde bakoitzak fitxa bat bete beharko du. Jarraian, taldeka bildutako informazioa gainontzeko guztiekin partekatuko dute plenarioan. Amaitzeko, paper zurian euren gogoeta laburrak idatziko dituzte, paper horiekin hegazkinak egin eta horretarako prestatutako paneleko zuloetatik sartzen saiatuko dira.
Denboralizazioa	55 minutuko tailerra

Eranskinak	Hezkuntza-proiektua azaltzen duen txostena (Bixitailerra: 15 orr.): https://www.uema.eus/wp-content/uploads/2019/09/HEDATU-txosten-laburtua.pdf
Oharrak	Tailerra UEMAKo teknikariek eskaintzen dute.